

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, KULTURA GARAIKIDEAREN NAZIOARTEKO ZENTROA, SA-REN FISKALIZAZIOAREN TXOSTENARI BURUZKOA, 2015**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen joan den azaroaren 30ean Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa, SAren kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazio txostena, 2015eko ekitaldiari dagokiona.

2015eko **urteko kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du.

Txostenak ondorioztatu du Sozietateak **zuzentasunez bete duela** 2015eko ekitaldian ekonomia-finantza jardura arautzen duen **lege arautegia**, nahiz akatsak azaleratu diren 4 kontratutan (3 kontratutan esleitutako zenbatekoaren gainean % 40tik gorako desbideratzeak eta onartu gabeko aldaketak eta beste kontratu batean, ez da justifikatu esleipena eskaintza onuragarrienaren alde egin dela). Gainera, Sozietateak 2 hornitzaileekin guztira 239.001 euroren zenbatekoan zerbitzuak eta hornidurak kontratatu ditu eta publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez beste zerbitzu bat kontratatu du, guztira 216.601 euroren zenbatekoan, prozedura irekia baliatu behar zukeenean.

Bestetik, HKEEk ezin egiaztatu izan ditu langileak hautatzeko bi enpresak garatu dituzten lan-poltsak osatzeko prozesuak, ez baitu dagokion dokumentazioa eskuratzerik izan; lan-poltsa horiek 2015ean obra edo zerbitzu jakinerako lan kontratu bidez 15 langile kontratatzeke baliatu ziren.